



**IRUNGO “ANTZARAN” BURUKO GAIXOTASUN LARRIA DUTENENTZAKO ERREHABILITAZIO
PSIKOSOZIALEKO EGUNEKO ZENTROAREN (EPSZ) ZERBITZUA KONTRATATZEKO
ARRAZOITUTAKO TXOSTENA**

AURREKARIAK:

Gipuzkoako Foru Aldundia Irungo Antzaran plaza, 14ean dagoen Gaixotasun Mentala duten pertsonentzako Errehabilitazio Psikosozialeko eguneko zentroaren jabea da. Zentroak 2007ko urtarrilean hasi zuen bere jarduera.

Diputatuen Kontseiluak 2009ko otsailaren 17an onartu zuen adimeneko gaixoentzako Irungo eguneko zentro psikosoziala erabili eta kudeatzeko kontratu administratibo bereziari zegokion espedientea.

Egin beharreko izapideak gauzatu ondoren, maiatzaren 15eko 868/09 Foru Aginduaren bitartez esleitu zitzaion kontratua “Jesusen Bihotz Sakratuaren Ahizpa Ospitalariak-Aita Menni Ospitalea”ri esleitu zitzaion, eta 2009ko maiatzaren 20ean sinatu zen kontratua.

Kontratuaren hasierako indarraldia 2012ko abenduaren 31ra artekoa zen, urterik urte luzatzeko aukerarekin, hamar urteko mugarekin. Beraz, kontratua 2019ko maiatzaren 20ean amaitu da.

Zerbitzu mota hori 185/2015 DEKRETUA, urriaren 6koa, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzkoan jasotako 2.2.1 fitxari dagokio, hau da, *Autonomia-mugei eragindako premiei erantzuteko eguneko zerbitzua edo zentroa*, eta zehazkiago *Gaixotasun mentala duten pertsonentzako eguneko zerbitzua edo zentroa*, Aldundien eskumenekoa.

Gipuzkoako Foru aldundiak ez dauka baliabide propiorik zentroa zuzenean kudeatzeko, beraz ezinbestekoa zaio kudeaketa hori zerbitzu-kontratu baten bidez bideratzea.

PROPOSAMENA:

Irungo Antzaran Buruko gaixotasun larria duten pertsonentzako errehabilitazio psikosozialeko zentroaren (EPSZ) zerbitzua kontratatzeke espedientea abiaraztea proposatzen dugu, honako xehetasunekin:

A. Xedea:

Buru nahaste larria dutenentzako errehabilitazio psikosozialeko eguneko zentroko zerbitzua, Irungo Antzaran zentroan.

B. Sortak:

Sortarik ez egitea proposatzen da.

Kontratuaren Baldintza Teknikoen Pleguan aurreikusitako jarduera edo zerbitzuak honakoak dira:

- 1.- Osasunaren eta norberaren zainketaren programa.
- 2.- Oinarrizko, etxeko eta komunitateko trebetasunen programa.
- 3.- Zerbitzu psikosozialak.
- 4.- Beste eragile batzuekin koordinatzeko zerbitzua.



5.- Ostalaritza zerbitzuak eta antzekoak:

6.- Erabiltzaileari eta familiari zuzendutako informazio/arretako eta partaidetzako zerbitzua.

Kontuan izanda 1, 2, 3, 4 eta 6 jarduerak langile berdinek gauzatu behar dituztela, ezinezkoa da jarduera horiek sorta desberdinetan bereiztea.

5. jarduerari dagokionez (garbiketa eta mantenua), kontuan izan behar da; alde batetik, garbitzaileen kasuan langile baten subrogazio betebeharra dagoela (urtean 580 ordurekin) eta horrekin zentroaren garbiketa beharrak betetzen direla. Bestetik, mantenuari dagokionez, ezinbestekoa da zerbitzu hau jarduera nagusiarekin erabat koordinatuta egotea; alde batetik, egunetik egunera menu kopurua aldatzen delako (erabiltzaileen eguneroko jarduera eta ordutegiaren arabera), eta bestetik, menu bereziak prestatu behar direlako, eta hauek ere oso aldakorrak izan daitezke (diabetikoak, hipokalorikoak, hiposodikoak, bigunak, beganoak, eta bestelako dieta bereziak), gaixotasun mentalaren ondorioz hartu beharreko medikazioa eta medikuaren jarraibideen arabera. Beraz, mantenuaren kudeaketa independentea erabat desegokia izango litzateke.

C. Iraupena:

3 urteko hasierako indarraldia, sinatzen denetik aurrera. Gainera, beste 2 urtez luzatzeko aukerarekin. Beraz, guztira gehienez ere 5 urteko iraupena (hasierako iraupena barne).

D. Kaudimena:

1.- Kaudimen ekonomiko finantzarioa:

Urteko negozio bolumena gutxienez 500.000€koa, azken 3 urteotako batean.

2.- Kaudimen tekniko eta profesionala:

Kontratu honen antzeko xedea duen lan bat gutxienez gauzatu izana, azken 3 urteotan, gutxienez 500.000€ko zenbatekoarekin.

E. Azpikontratazioa:

Zentroan eman beharreko zerbitzuak Ezaugarri Teknikoen agiriaren II. eranskinean zehazten dira, eta horietatik kritikoak honakoak dira, beraz azpikontrataezinak:

- 1.- Osasunaren eta norberaren zainketaren programa.
- 2.- Oinarrizko, etxeko eta komunitateko trebetasunen programa.
- 3.- Zerbitzu psikosozialak.
- 4.- Beste eragile batzuekin koordinatzeko zerbitzua.
- 5.- Erabiltzaileari eta familiari zuzendutako informazio/arretako eta partaidetzako zerbitzua.

Guztiak zerbitzuaren-muina, eta xede nagusia osatzen dute, hau da, erabiltzaileekin tratatu zuzena dute funtzio hauek betetzen dituzten langileek, kasu bakoitzaren ezaugarriak ondo ezagutzen dituzte eta erabiltzaileekin eta erabiltzaileentzat eguneroko lana egiten dute, beraz, esleipendunak zuzenean eman beharrekoak dira, azpikontrataziorik gabe.

Beraz, azpikontratatu daitekeen zerbitzu bakarra honakoa litzateke:



1. Ostalaritza eta antzekoak.

Hemen garbiketa eta mantenua sartzen dira, baina aurrean esan bezala, garbiketaren kasuan ez da aurreikusten azpikontratazioa egiteko inolako aukerarik. Beraz, Mantenua izango litzateke azpikontratagarria izan daitekeen jarduera bakarra.

F. Esleipen irizpideak:

1.- BALIO-JUDIZIOAREN BIDEZ BALIOESTEKO IRIZPIDEAK: 48 puntu

1.1.-Eskaintza teknikoa: 36 puntura arte

<p><u>Proiektuaren ikuspegi orokorra:</u> Atal honek derrigorrez honako elementuak jasoko ditu, eta honela baloratuko dira:</p> <ul style="list-style-type: none">• Proiektuaren filosofia asistentziala, helburuak eta jarduera printzipioak.• Diseinatutako arreta eredua, non erabiltzaileen profilak eta bere beharrei erantzuna emateko egindako diseinua islatuko diren.• Interbentzio plan orokorra, bertan zehaztuta helburuak, tresnak, eman beharreko zerbitzuak eta aurreikusitako giza baliabideak.• Aurreko aspektuen arteko koherentzia.	<p><u>4 puntura arte</u></p> <p>1 puntura arte</p> <p>1 puntura arte</p> <p>1 puntura arte</p> <p>1 puntura arte</p>
<p><u>Lan programa:</u> Baldintza teknikoetan jasotako zerbitzu bakoitza emateko aukeratutako berariazkotasuna eta modalitatea aztertuko dira.</p> <ul style="list-style-type: none">• Osasuna eta norberaren zaintza.• Oinarrizko gaitasunak, etxeak eta komunitarioak.• Psikosozialak.• Beste agenteekin koordinazioa• Hotelekoak eta antzekoak.• Erabiltzailearen eta familiaren informazio / arreta eta parte hartzea.	<p><u>26 puntura arte</u></p> <p>4 puntura arte</p> <p>5 puntura arte</p> <p>5 puntura arte</p> <p>4 puntura arte</p> <p>4 puntura arte</p> <p>4 puntura arte</p>
<p><u>Antolakuntza eta Kudeaketa:</u> Atal honetan planteatutako antolakuntza eta kudeaketa ereduak baloratuko dira:</p> <ul style="list-style-type: none">• Kalitatearen kudeaketa.• Informazio segurtasunaren kudeaketa (izaera pertsonaleko datuen babesa).• Langileen antolaketa.	<p><u>6 puntura arte</u></p> <p>2 puntura arte</p> <p>2 puntura arte</p> <p>2 puntura arte</p>

1.2.- Zentroaren mantentze plana: 12 puntura arte

<p><u>Zentroaren mantentze plana</u> Atal honek derrigorrez honako elementuak jasoko</p>	<p><u>12 puntura arte:</u></p>
---	---------------------------------------



ditu, eta honela baloratuko dira:	
<ul style="list-style-type: none">• Mantentze plana zentroari egokitzea eta jarduketa osagarriak.	3 puntura arte
<ul style="list-style-type: none">• Aurreikusitako ordu kopurua.	3 puntura arte
<ul style="list-style-type: none">• Jarduketan maiztasuna.	3 puntura arte
<ul style="list-style-type: none">• Aurreikusi ezin diren egoerei aurre egiteko modua.	3 puntura arte

2.- FORMULA BIDEZ BALIOESTEKO IRIZPIDEAK: 52 puntu

2.1.- Prezioa: 40 puntura arte

2.2.- Desgaitasunen bat duten pertsonen, baztertuen eta talde zaugarrietako kideen gizarteratzea sustatzea: 5 puntura arte.

<p>5 puntu arteko balorazioa emango zaie manutentzio zerbitzua gizarte ekimeneko enplegu zentro bereziekin eta/edo gizarteratzeko enpresekin azpikontratzeko konpromisoa hartzen duten entitate lizitatuzailei.</p> <p>Hala eginez gero, azpikontratatu diren enpresak hauek izango dira eskusiboki:</p> <ul style="list-style-type: none">• Gizarte ekimeneko enplegu zentro bereziak. 9/2017 Legeak, azaroaren 8koak, sektore publikoko kontratuenak, 14. xedapen gehigarrian adierazitako deskribapenaren eta baldintzen arabera, gizarte ekimeneko enplegu zentro bereziek behar bezala izena emanda eta erregistratuta egon beharko dute, 1/2013 Legegintzako Errege Dekretuak, azaroaren 29koak, desgaitasunen bat duten pertsonen eskubideei eta haien gizarteratzeari buruzko Lege Orokorraren Testu Bategina onartzen duenak, ezarritako erregulazioaren arabera.• Gizarteratzeko enpresek behar bezala izena emanda eta erregistratuta egon beharko dute, 44/2007 Legeak, abenduaren 13koak, gizarteratzeko enpresak arautzekoak, xedatutakoaren arabera, edo, bestela, dagokion araudi autonomikoaren arabera.	<u>5 puntura arte.</u>
--	-------------------------------

2.4. Emakume eta gizonen arteko berdintasun gaitan kualifikazioa: 5 puntura arte.

<ul style="list-style-type: none">• Ikastaro bat diseinatu eta emateko konpromisoa, baimendutako zentro baten bidez, gutxienez 30 ordukoa (ECTS kreditu 1) kontratua gauzatuko duten langileei zuzendutakoa, eta edukia genero teoriaren eta hizkuntza ez-sexistaren oinarriko kontzeptuen aplikazioa izango duena.	2,5 puntura arte
<ul style="list-style-type: none">• Ikastaro bat diseinatu eta emateko konpromisoa, baimendutako zentro baten bidez, gutxienez 30	2,5 puntura arte



ordukoa (ECTS kreditu 1) kontratua gauzatuko duten langileei zuzendutakoa, eta edukia genero ikuspegiarekin komunikazio prozesuak interbentzio guneetan izango duena.	
---	--

2.5.- Hizkuntz berdintasun gaietan kualifikazioa, Euskara: 2 puntura arte.

<ul style="list-style-type: none">Ikastaro bat emateko konpromisoa, baimendutako zentro baten bidez, gutxienez 100 ordukoa (ECTS 3 kreditu) kontratua gauzatuko duten langileei zuzendutakoa, bere zereginetan Euskaraz jarduteko.	2 puntura arte
--	----------------

G. Exekuzio baldintza bereziak:

1.- Hizkuntza berdintasunari dagokionez:

Kontratatistak kontratuarentzako berariazko Euskara Plan bat diseinatu eta aplikatu beharko du.

2.- Emakume eta gizonen arteko berdintasunari dagokionez:

Kontratatistak kontratuarentzako berariazko Emakume eta gizonen arteko Berdintasun Plan bat diseinatu eta aplikatu beharko du.

H. Bestelako xehetasun batzuk:

Gaur egun dauden langileen subrogazio obligazioa kontuan izanda, ordezkapenak eta kontratazio berriak egiteko honako baldintzak ezartzea proposatzen da, titulazio eta Euskararen ezagutzari dagokionez:

a) Errehabilitazio psikosozialeko monitorea:

Plegu teknikoen IV eranskinean jasotzen diren funtzioak gauzatzeko titulazio egokia, eta titulazio hori, besteak beste, Gizarte Hezkuntzan gradua eto Gizarte Integrazioko goi mailako zikloa izan daitezkeelarik.

b) a) Zentroko arduraduna:

Aurreko kontratuarekin alderatuta, arduradun lanak egingo dituen pertsonaren profilararen inguruan zehaztapen handiagoa sartzeko proposamena egiten dugu. Izan ere, errehabilitazio psikosozialeko zentroetan (EPSZ) artatutakoen berezitasun nagusiak honakoak dira: Osasun Mentaleko Sare publikoko erabiltzaileak izatea eta buruko nahasmendu larri baten diagnostia izatea, bere funtzionaltasunari eragiten diona (pertsonala, laborala, familiarra edota soziala). EPSZen helburua,



Osasun Mentaleko sare publikoarekin batera, zera da: pertsonak afektatuta dauzkan arlo funtzionalak zehaztea eta berari egokitutako errehabilitazio psikosozialeko plan bat diseinatzea, errekupeazioa lantzeko. Talde-arduradunaren funtzioa da banakako plan hori diseinatzea, Osasun Mentaleko sare publikoarekin batera, baita zentroaren jarduera guztiak zuzentzea eta gainbegiratzea ere. Zeregin hauetarako ezinbestekoa da osasun mentalaren inguruko ezagutza kliniko eta funtzionalak izatea. Ezagutza hori ziurtatzeko:

- a) Osasun mentalaren inguruko ezagutza zuzena duten titulazioak eskatuko ditugu (psikiatria edo psikologia)
- b) Edo bestela, arlo soziosanitarioko beste titulazioak (medikuntza, erizaintza edo gizarte lana), baina bestelako osagarri hauetakoren batekin:
 - a. Adimen-osasuneko master edo graduondoko bat.
 - b. Edo 3 urteko lan esperientzia Adimen osasunaren alorrean.

Halaber, Euskararen ezagutzari dagokionez, Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko euskarako C1 maila egiaztatu beharko du.

Donostian 2019ko abuztuaren 23an

Ander Zapiain Usandizaga

Mendekotasunaren eta Desgaitasunaren Arretako zerbitzburua.